

## Aurtengo xedea

Urtero, Herri Urratsen lelo, logo eta kantu berri horien giblean xede garrantzitsu bat agertzen da. Eta aurten, maiatzaren 12an lortuko den etekinen zati handi bat Xalbador kolegioaren arraberritze proiektua finantzatzera joanen da.

Oroit gaitezen Herri Urrats Xalbador Kolegioko “Nere pentzea” etxea erosteko sortu zela, beraz Herri Urratsen urteurrena Xalbadorrena ere bada. Eta Xalbadorrek erakusten digu zein den gaur egun gure hizkuntzaren egoera: gure kultura aterpetzen duen eraikin zahar hau mantentzeko, euskara alegia, arraberritu behar dugu bai kanpotik, bai barnetik. Eta horrek lana eskatzen du, eta engaiamendu bat, azken 30 urteotan Pirinio bi aldeko euskal gizarteak Herri Urratsen parte hartuz erakutsi duena.



Nere Pentzearen itxura aldatu da kanpotik eta barnetik. Eraikin berri bat dirudi arraberritze prozesua ondoren. Hemendik goiti, bertan izanen du Seaskak bere egoitza.

“Nere pentzea”ren arraberritzea bukatu eta kolegioaren arraberritze prozesua hasia da, edo hobe erranda eraikitze prozesua. Izan ere, kolegioa bere oinarrietatik berregiten ari da Seaska momentu honetan. Obrak aski aitzinatuak dira eta datorren sartzetako bukatuak izanen dira.



L'argent récolté à Herri Urrats en cette édition sera destiné au projet d'aménagement du collège Xalbador. Dans un premier temps il a fallu réhabiliter la maison « Nere Pentzea » qui deviendra siège de Seaska. Il faut rappeler que cette maison ancienne de 100 ans a été à l'origine d'Herri Urrats car cette fête a été créée justement pour acquérir cette bâtisse de style néobasque. Ce phase de rénovation se poursuit avec la construction d'un nouvel édifice qui abritera les classes à partir de la rentrée prochaine.

Alain Boscq Herri Urratseko lehendakariaren iritziz “aurtego urtemuga jauzi handi bat emateko baliatu behar dugu, besteak beste bide erdian agertzen zaizkigun arazoan gainetik ikastola gehiago sortzeko, euskaldun gehiago hezteko, gure hizkuntzak iraun dezan”.

## **Herri Urrats, diru iturri ikastolen garapenerako**

Herri Urrats bestaren etekinei esker (norbanakako, enpresa eta tokiko elkargoen diru emaitzekin batera) Seaskak 25 ikastola, 3 kolegio eta lizeo bat ireki ahal izan ditu. Ikastolen federazioaren parte diren zentroetako eraikinen garapena eta mantenua ziurtatzeko baliatzen da bereziki Senpereko bestatik lortzen diren irabaziak.

Oraingo ikastolen estatutuak (Estatuarekin elkarte kontratua) ikastolen gain uzten ditu zentroen irekierak, eraikuntzak eta egoitzen mantenua. Horregatik, 1996an, ikastolen kontseiluak « Ikastolen Egoitzak » entitatea sortu zuen, egoitzen kudeaketaz arduratzeko.

Herri Urrats besta, Iparraldeko ikastola guzieren jaia da, erran nahi baitu etekinak ikastolen beharren arabera banatzen direla. Hegoaldeko ikastolen jaiak, urtero ikastola baten esku baldin badaude, Herri Urrats, Iparraldeko ikastola guztietako buraso guzieren gain da, eta hori urte guztiz.

## **Herri urratsen etekinak**

Bere sortzetik, 1996 urte arte, Herri Urratsen etekinak Xalbador Kolegioko eraikuntza eta egokitzetan baliatuak izan ziren.

1996ko uztailan, Ikastolen Kontseiluak " Ikastolen Egoitzak " batzorde iraunkorra sortu zuen, ikastola bakoitzak egoitza egokiak izan zitzan bermatzeko.

1997ko urtarriletik, Ikastolen Egoitzak batzordeko aurreko lanari esker, Ikastolen Kontseiluak, Herri Urratsetik behar ziren diru zamak proiektu horietan xedatu zituen :

1997/1998 :

-Sohütako ikastolako eraikuntzan (lehenengo lanak), Angeluko eta Kanboko Errobi ikastolako eraikuntzetan parte hartzea.

-Garaziko ikastolarentzat zelaiaren erosketan parte hartzea.

-Ortzaizeko ikastolako gela osagarri baten eraikuntzan parte hartzea.

1998/1999 :

-Sohütako ikastolako eraikuntzan (bigarren lanak) eta Urruñako ikastolaren eraikuntzan parte hartzea.

-Garaziko ikastolako zelaiaren erosketa.

-Amikuzeko ikastolarentzat prefabrikatu baten erosketa.

-Oztibarreko ikastolako egoitzen egokitzean parte hartzea.

1999/2000 :

- Donaixti, Ziburu eta Xalbador Kolegioetako eraikuntzen egokitzea.
- Sohütako ikastolako eraikuntzan (azken lanak) parte hartzea.
- Hazparneko ikastolarentzat prefabrikatu baten erosketa.
- Garaziko ikastolako zelaiaren I.V.A.ren ordainketa.

2000/2001 :

- Senpere, Bernat Etxepare (Seaskako lizeoa), Aloze eta Piarres Larzabaleko (Ziburuko kolegioa) egoitzen egokitzeak.
- Garaziko ikastolarentzat prefabrikatuen erosketa.
- Kanboko Errobi ikastolarentzat itzalkarien erosketa.
- Donaixti kolegioko handitzea.
- Urruñako ikastolako handitzea.
- Amikuzeko ikastolako karguen ordainketa.

2001/2002 :

- Donaixti, Ziburu eta Xalbadorreko Kolegioetako egoitzen egokitzeak.
- Hiriburuko ikastolako sorkuntza.

2002/2003 :

- Garazi eta Hazparneko ikastoletako eraikuntzetan parte hartzea.
- Donaixti, Ziburu eta Xalbadorreko Kolegioetako egoitzen egokitzeak.
- Urruñako ikastolako handitzea.
- Oztibarreko ikastolarentzat, aterpe baten eraikuntza.
- Angeluko ikastolarentzat prefabrikatu baten erosketa.

2003/2004:

- Donaixti: Lasako ikastola ohitik, 2 prefabrikatu eramatea Donaixtira.
- Urruña : Lasatik Urruñara prefabrikatu bat eramatea.
- Angelu : prefabrikatu baten alokatzea eta ezartzea, diru laguntzen bidez, Herriko etxeak gastuak itzuliko ditu.

2004/2005:

- Hiriburu: 60 m<sup>2</sup>-ko ikasgela eta 35 m<sup>2</sup>-ko aterpea muntatzea.
- Ortzaize: Lasako azken prefabrikatuak berreskuratzea. Burasoek obra handiak egin zituzten eta Ikastoeln Egoitzak materiala hornitu zuen.
- Oztibarre : arraberritze lanak.
- Ziburu: bi ikasgela (prefabrikatu) eta lau komun ezartzea.
- Baionako Polo ikastola: 45 metro karratu prefabrikatu baten alokatzea.

2005/2006:

- Baionako Polo ikastola: bigarren prefabrikatu baten alokatzea.
- Angeluko ikastolan lehen mailako klasearen irekidura.

2007-2008 :

- Arberoako ikastolaren idekitzea Donamartirin.
- Izurako ikastola eta Donaixtikiko Manex Erdozainzi Kolegioa Lartzabaleko eraikin berrietan kokatzea.

2008-2009 :

- Bidarten, ama ikastola bat idekitzea.

2009-2010 :

-Ortzaizeko ikastolako obrak finantzatzeko laguntza.

2010-2011 eta 2011-2012:

Herri Urratsi esker bildutako diruaz Xalbador kolegioko obren finantzazioaren parte bati aurre egin zaio. Bainan ez da nahikoa izan. Horregatik, aurtien ere, 30, edizio sinboliko honetan lortuko den irabazien parte handi bat, Xalbador kolegiara zuzendua izanen da.

## **Seaska, ikastolen federazioa**

SEASKAK, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako ikastolen federazioa. Duela 43 urte sortua, Ipar Euskal Herrian murgiltze ereduan (D ereduan) dagoen aukera bakarra da. Ikastolak dira gaurko haurrak, biharko gizarte eragile euskaldunak segurta ditzakeen egitura bakarra.

25 urtez inolako ezagupenik ukan gabe, 1994 urtean eskuratu zuen Seaskak Hezkuntza Ministeritzaren ezagupena, ikastolei izaera pribatuko elkarteen estatusa emanik.

Geroztik irakasleen enplegatzailea Pariseko Hezkunde Ministeritza bada ere, ikastolek beharrezkoak dituzten lanpostu guztiak ez ditu ematen ministeritzak eta ondorioz urtez urte geroz eta irakasle gehiago ordaindu behar ditu Seaskak bere sakeletik.

Horretaz gain, nahiz eta zerbitzu publiko bat eskaini eta eskola laikoa izan, eskola pribatu gisa onartua denez, botere publikoei ikastoletan inbertsio publikoak egitea galarazten dion 1848ko Falloux legea inposatzen zaie ikastolei.

Seaskaren baitako ikastolek, hezkuntza sare osoa segurtatzen dute ama ikastolatik batxilergoa arte.

Gaur egun, 3000 haur baino gehiago eskolatzen ditu Seaskak :

- 26 ama ikastola eta lehen mailan
- 3 kolegioetan: Kanbon, Ziburun eta Lartzabalen
- Baionako Lizeoan, L, S, ES sareekin.

## **Seaska elkarte eskola**

Seaskako buraso ordezkariak eta langileen ordezkariak osatzen duten Bulego Erabakitzaileak kudeatzen du. Bere gidaritzapean, Seaskako talde profesionala dago, ikastolen egonkortasuna, aholkularitza, irakasleen kudeaketa, garapena eta jardun pedagogikoa eskaintzen duena.

Seaskako 30 ikastolak, Ikastolen Elkarteko kide dira Euskal Herriko Ikastolak Europar kooperatibaren baitan, 7 probintzietako ikastolak biltzen dituena.